65+ eguna

INOIZ EZ DA BERANDU

Adina ez da oztopo elkartzeko, ezta beharra dutenei laguntzeko, bide berriak hasteko nahiz belaunaldi berrien freskotasunaz kutsatzeko ere. Larunbatean ospatuko da Adinekoen Nazioarteko Eguna.

UROLA KOSTAKO HITZA
Osteguna, 2022ko irailaren 29a

AUKERA, BOLUNTARIO LANARI ESKER

Adinekoei zuzendutako ekintza sorta zabala dago Zarautzen, hainbat herritar jarduten direlako horiek prestatzen herriko elkarteetan.

Begoña Egaña, Iñurritza Jubilatuen Elkartean. AMAIA URBIETA ARRUTI

Soldatapeko lanetik erretiroa hartzeak ez du zertan ekarri lana egiteari uztea. Begoña Egaña antzuolarra ezagutzea besterik ez dago hori frogatzeko. Zarautzen bizi da duela zenbait urtetik, eta 69 urterekin, hamaika saltsatan murgilduta ibiltzen da. Beste hainbat konturen artean, Iñurritza Jubilatuen Elkarteko presidentea da orain, eta une oro du zereginen bat esku artean.

Herri handia izanik, zerbitzu ugari dago Zarautzen adin guztietako herritarren beharrei egokituta. Hala, edadetuek denetarik egiteko aukera dute: informatika ikastaroak, soinketa egiteko askotariko saioak, kultur jarduerak, bidaiak... Hori hala dela aitortzen du Egañak, baina hein handi batean, hori posible da adinekoak eurak antolatzen direlako eta lan egiten dutelako horren alde. «Herri txiki batean zerbitzu gutxiago dago, bai, baina juntatzeko eta gauzak egiteko gogoa baldin badago, berdin-berdin egin daitezke», uste du Egañak.

Duela lau urte hasi zen bera, beste hiru lagunekin batera, elkarteko kideei laguntzen antolatzen zituzten ekintzetan. Handik pixka batera, lau lagun atera ziren batzordetik, eta beraientzako tokia gelditu zen. Gainera, sartzearekin bat, elkarteko presidente izendatu zuten Egaña. «Bateren batek egin behar du», esan du barrezka. Zortzi lagun dira batzordean, eta talde osoak egiten duen lana goraipatu du: «Oso-oso ekipo ona da».

Ez dira geldi egotekoak jubilatuen elkartekoak, hamaika ekintza antolatzen baitituzte urtean zehar, bai elkarteko kideentzat, bai elkartetik kanpoko herritarrentzat. Horietako hainbat ekarri ditu gogora Egañak: Arrain Zopa abesbatzarekin batera Santa Ageda bezpera ospatzen dute Iñurritza auzoan, afari eta guzti; bertso saioa antolatu ohi dute urtean behin gutxienez; Korrika igaro zenean txokolate jana antolatu zuten auzoan... «Korrikarena ederra izan zen, 200 txokolate basokada baino gehiago banatu genituelako goizaldeko 04:00etan; leher eginda amaitu genuen, baina oso gustura», oroitu du.

Iñurritza Jubilatuen Elkarteko presidentearen iritziz, herri txikietan ere berdin-berdin antolatu daitezke ekintzak

Bestalde, azpimarratu du pandemiak beraien jardunean izan duen eragin handia ere. 2020ko martxoan etenaldi luze eta gogorra izan zuen jarduera orok eta, behin hori igaro zenean, pixkanaka hasi ziren berriro ekintzak antolatzen. «Guri dena berriro martxan jartzea egokitu zitzaigun», esan du antzuolarrak, eta baieztatu duenez, ez zen lan erraza izan jendea berriro ere aktibatzea.

Zenbait ekintza Udaberri Jubilatuen Elkartearekin batera antolatzen dituzte. Esaterako, Virginia Imaz *clown*-aren tailerra. Bi elkarteek egiten dute lan handia, eta biak dira oso aktiboak. Dena den, Udaberrin asteroko ikastaro eta jarduna dagoen moduan, Iñurritzako elkartea «kulturarekin lotuago» dagoela irizten dio Egañak eta, horrez gain, elkarte gastronomikoa ere bada Iñurritzakoa. Biak osagarriak dira, beraz.

Hori bai, bi elkarteetan egiten dute bingo saioa astean behin. «Horixe da hemen inportanteena!» azpimarratu du. Asteazkenero egiten dute saioa, eta elkartea goraino betetzen da, Egañaren esanetan. Jende oso heldua ere joaten da bingoan jokatzera, eta horiei apur bat laguntzeko, batzordeko bi kide joaten dira asteazkenero, txandaka-txandaka, edadetuenei kafeak-eta ateratzen laguntzeko. 16:30etik 18:00etara ematen dute barra zerbitzua, eta gero bingoa hasten da. «Orduan denak isiltzen dira», jokoan kontzentratu ahal izateko.

Saltsa handiko espazioa da Iñurritza Jubilatuen Elkartea, eta erabiltzaileek asko eskertzen dute hori. Zenbait egunpasa antolatzen dituzte, eta izena ematen dutenek oso gustura parte hartzen dute halakoetan. Azkenekotik bueltan, «noiz egingo dugu hurrengoa?» galdezka zituen Egañak itzulerako autobusera igo bezain pronto. Dena den, egiten duten guztia antolatu ahal izateko «boluntario falta» dagoela nabaritzen du antzuolarrak. Elkarte gastronomikoa izanik, jendea bazkaltzera eta afaltzera joaten da bertara, baina batzordekoak ekintzak antolatzeaz hitz egiten hasten direnean, «beste aldera begiratzen du jendeak».

Gero eta boluntario gutxiago egotearen errua beraiena ere badela uste du Egañak, «dena eginda» eman izan dutelako. Gauzak garbi ditu, ordea: «Hau guztia eramango duen talderik ez balego hemen, itxi egin beharko litzateke». Edo ez luke oraingo moduan funtzionatuko, bederen. Hori kontuan hartuta, Zarautzen jubilatuentzako eskaintza handia dagoela aitortzen du Egañak, baina «jendeak horretarako lan egiten duelako» izaten dela hori.

3Z taldekoak eta herritarrak, taldeak antolatutako eskulan ikastaroan, aste honen hasieran. KRIS FERNANDEZ

EGOITZA HERRIA IZAN DADIN

Adinekoen eta bakarrik bizi diren pertsonen zaintza. Hori da Zestoako 3Z taldearen helburua. 2018. urtean ideiari bueltak ematen hasi, eta hurrengo urtean sortu zuten taldea herritar batzuek. Hasierako taldekideek bazuten esperientzia beren familiako adinekoak zaintzen, eta Xanti Ugarte taldearen sortzaileetako batek azaldu duenez, zer pentsatua eman zien esperientzia horrek: «Herriko baliabideak urriak zirela ikusita, gure zahartzaroa beltza ikusten genuen, askok atzetik ez geneukalako familia askorik, eta batzuek, inor ere ez». Belaunaldiz belaunaldi, seme-alaben ardura izan da adineko gurasoen zaintza, baina, gaur egun, egoera asko aldatu da; familia eredua ere ez da lehengoa –bikote homosexualak, seme-alabarik gabeko familiak, guraso bakarrak... gero eta ohikoagoak dira–. Horrek galdera bat sortu zuen taldekideengan: «Nork zainduko gaitu gu?».

Hiru urteko ibilbidean hainbat oztopo izan dituzte –COVID-19ak eragindako pandemia batik bat–, baina helburua beren jarduna zehaztea eta finkatzea izan da. Hala, pandemia garaia aprobetxatu zuten telefono deiak egin eta herriko egoera erreala ezagutzeko, eta horrekin batera, «oinarriak jartzen» aritu dira «Zestoan zaintzako proiektu komunitario bat garatzeko bidean». Esaterako, *cohousing* esperientzia europarraz hausnartzen hasi ziren, «baina oker gindoazela ohartu ginen. Izan ere, Zestoa herri txikia da, eta, beraz, lelotzat hartu dugun ideia da garrantzitsua guretzat: gure egoitza herria da». Ordutik, filosofia horrekin ari dira lanean.

Zestoan 3Z taldea lanean ari da 2018tik adinekoen zaintza modu komunitarioan antolatzeko helburuz

Normalean herritarrek ez dute adinekoen zaintzaz hitz egiten, ezta horretaz pentsatzen ere, gertu tokatu arte. Horregatik, gaia herritarrei gerturatzea erabaki zuen taldeak, eta horretarako, hainbat ekintza antolatu dituzte azken hilabeteetan, «batik bat, taldea bera eta bere jarduna eta helburuak ezagutzera emateko». Batetik, pentsiodunen bizi baldintzen gaiari eta borrokari heldu diote; bestetik, ikastaroak antolatu dituzte –kartoizko eskulanak egiteko edota sakelako telefonoa nola erabili erakusteko– eta aurrera begira «berrikuntzak» etorriko direla aurreratu du Ugartek.

3Z taldeak bidelagunak ere aurkitu ditu. Esaterako, San Juan egoitza eta fundazioa. «Gure berri izan zutenean, urteetan kaxoian gordeta zuten proiektua erakutsi ziguten, guztiz bat zetorrena gure ideiarekin», azaldu du Ugartek. Modu horretan, Zestoako zaintza eredua eraldatzeari ekin diote elkarlanean, eta bat egin du Zestoako Udalak ere. «Oraingoz, alde teorikoa landu dugu», zehaztu du Ugartek.

KOMUNITARIOA

Azken urteetan asko aldatu da adineko pertsonen egoera. Alde batetik, zahartzarora egoera fisiko hobean iristen dira edadetuak, eta, bestetik, emakumeak orain jubilatu egiten dira, eta hori fenomeno berria dela azpimarratu du taldeak. «Emakumezkoak lehen etxean egoten ziren, hango lanetan edo zaintza lanetan. Orain, karrera profesionala eduki ondoren, erretiroa hartzen dute. Gainera, bizi itxaropena ere handiagoa da gaur egun, eta familia ere ez dago adinekoak zaintzeko moduan: kanpoan bizi dira asko, seme-alabarik ez dute izan beste batzuek, edo bakarra izan dute... Hori ikusirik, ezin dugu beste alde batera begiratu. Horregatik, uste dugu elkar-zaintza edo bizitza komunitarioa dela bidea», esan du Ugartek.

Hala, 3Z taldearen proposamena da zahartzarora iristean bizitza komunitarioa lantzea eta, konpromisoz, gainontzekoei laguntzea. Horretarako, ordea, belaunaldi berrien beharra ere bada, eta aldaketa hori feminismotik egin behar dela sinesten dute 3Z taldekoek.

Ugartek argi du proiektuak jarraipena izateko gakoa zein den: «Taldea sortu genuenean pertsona konprometituak nahi genituen, baina eliterik sortzerik ez dugu nahi. Talde unibertsala nahi dugu, eta horretarako oinarriak jartzen ari gara; pertsonak bilatu behar ditugu norbait jubilatzen denean edo jubilatzear dela zaintzaren gaia jorratu eta landu dezan».

UROLA KOSTAKO HITZA
Osteguna, 2022ko irailaren 29a

ETXEAN ZAINDUAK IZAN NAHI DUTEN ADINEKOENTZAKO ZERBITZU PILOTUAK ABIAN

Etxez etxeko arreta integrala eta komunitatean bizitzeko esperientzia pilotua jarri ditu martxan aurten Azpeitiko Udalak. «Esperientzia oso positiboak» izaten ari dira.

Adinekoen kopuruak gora egitea eta gizartearen zahartzea errealitate bat dira. Erronka horri egin beharko diete aurre datozen urteotan Azpeitiak eta azpeitiarrek. Gero eta altuagoa da bizi itxaropena, eta horrek zuzenean ekarri du beharrizan eta zerbitzu berrien beharra. Azpeitiar guztiei, adinekoei ere bai, bizi kalitaterik onena eskaini asmoz, Azpeitiko Udala buru-belarri dabil adinekoen eta, batez ere, zaintzaren inguruko hausnarketa lanketa egiten. Bide horretan, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean zaintza ekosistema integral berri bat garatzeko lanean ari da.

Azpeitiko Udalaren ikerketa baten arabera, 2031. urtean, azpeitiarren ia laurdenak 65 urtetik gora izango ditu, eta 500 herritarrek baino gehiagok izango dituzte 80 urtetik gora. Bide horretan, mendekotasuna %38ra haztea aurreikusten da. Datu horiek esku artean izanda, Azpeitiko Udalak adinean aurrera doazen herritarrentzako zerbitzu berritzaileak jarri ditu abian aurten: etxez etxeko zaintza integrala, eta komunitatean bizitzeko aukera.

«Ezinbestekoa da herritarren beharrei erantzutea, izan horiek medikuntza arlokoak, psikologikoak, emozionalak, ekonomikoak edo sozialak. Eta hori horrela izan dadin, laguntza-mekanismo publikoak eskaintzea dagokigu guri. Pertsona bakoitzari, eta kasu honetan, menpekotasunen bat duten edo hauskortasun egoeran dauden pertsonei, arreta pertsonalizatu, integral eta espezifikoak eskaintzea da helburua. Etxean bizitzea erabaki duten herritarrek beren garapenerako lagungarri izango zaien arreta egokia jasotzeko aukera dute etxean bertan», adierazi du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

ZAINTZA ZERBITZU INTEGRALA

Aurtengo otsailean abiatu zuen Udalak zaintza zerbitzu integralaren proiektu pilotua. Ohiko etxez etxeko zerbitzua osatzera datorren zerbitzu osoa eta integrala da; etxean zainduak izatea erabakitzen duten adinekoentzako zerbitzua, alegia.

Askotan, familiak bere gain hartzen du mendekotasun bat izanagatik oraindik etxean bizitzeko gai den pertsonaren zaintza. Horregatik, etxean zainduak izatea erabakitzen dutenei 365 egunez eta 24 orduz arreta etxean bertan eskaintzen die zerbitzu publiko honek. Honela, mendeko pertsonen garapenean lagungarri eta lasaigarri den zerbitzu integrala eskaintzeko pausoa eman da, eta etxean bizi diren pertsonen hauskortasun egoerak aurreikusteko eta bakardade egoeren aringarri izateko tresna da. Erabiltzaile bakoitzaren premiei erantzuten die zerbitzuak eta, hala, astero, gizarte laguntzailearen eta psikologoaren bisitak jasotzen dituzte erabiltzaileek. Alde batetik, psikologoarekin autonomiari heltzeko ariketa fisiko eta mentalak egiten dituzte. Bestetik, gizarte langilearekin egunerokoan sortzen diren beharrei erantzuteko laguntza eta bakardadeari aurre egiteko babesa jasotzen dute.

Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko zerbitzu berri eta berritzaileen esperientzia pilotuak abian ditu udalak

Esperientzia pilotuak 39 erabiltzaile izan ditu bere sorreratik, 21 gizon eta 18 emakume, eta batezbesteko adina 78 urtekoa izan da.

ETXEAN ZAINDUA

Mari Kontxi Urkizu da eguneko zerbitzu integrala jasotzen duen azpeitiar horietako bat. 81 urte ditu, eta proiektua abian jarri zenetik da erabiltzailea. «Gustura» dago jasotzen duen arretarekin. «Etxera etortzen zaizkit, astean bi egunetan psikologoa eta astean behin gizarte langilea. Eta gainerako egunetan, edozer dudala ere lasai deitzeko esaten didate. Hori benetan eskertzekoa da. Ez badiezu deitzen ere, laguntzeko dituzula jakiteak lasaitasuna ematen dit», azaldu du Urkizuk.

Bakardadeari aurre egiteko baliogarri zaio: «Biek oso zeregin desberdina dute etortzen direnean. Psikologoarekin memoria ariketak, gaurkotasunekoak eta ariketa fisikoak egiten ditut. Gizarte langilearekin, berriz, egunerokoan egin beharreko mediku bisitak, enkarguak edo etxeko kontuak egiten ditugu. Eta asko hitz egiten dugu. Nire gauzak kontatzen dizkiot, gertatutakoak, nire kezkak, nire pozak.... Eta horrek lasaitu egiten nau».

KOMUNITATEAN BIZITZEA

Elizkalean 12 etxebizitza tutelatu jarriko ditu abian datorren urtean. Etxebizitza horiek komunitatean bizitzeko aukera eskainiko dute, bakardadeari aurre eginez eta etxez etxeko zerbitzu integrala jasota.

Etxebizitza horiek prestatu bitartean, ordea, aurretiazko esperientzia gisa, hiru etxebizitza komunitario jarri ditu udalak, eta aurten 12 lagun pasatu dira bertatik, hiru emakumezko eta bederatzi gizonezko. Erabiltzaileen batezbesteko adina 70 urtekoa izan da, eta orain arteko esperientzia oso positiboa izaten ari da.

«Garrantzitsuena agente on batek laguntzea da»

ESTIBALIZ UNZUETA • Zarauzko Seguros Bilbao

Adinean gora egin ahala, aseguru on bat edukitzeari inportantea deritzo Estibaliz Unzuetak, eta beraien zerbitzuei buruzko azalpenak eman ditu. Konfidentzialtasuna, gardentasuna eta konfiantza eskaintzen ditu Zarauzko Seguros Bilbaok.

Estibaliz Unzueta zarauztarra, Seguros Bilbao aseguru etxeak Zarautzen duen bulegoan, Zigordia kalean. HITZA

Zer eskaintzen die Seguros Bilbaok 65 urtetik gorako herritarrei?
Galdera horri erantzuteko, aurrena argi utzi behar dena da zer den aseguru bat. Aseguru bat instrumentu bat da pertsona bakoitzak eduki ditzakeen arriskuen ondorioetatik babesteko. Hainbat motatakoak daude: medikuntza pribaturako sarbide moduko aseguruak, bizi aseguruak, istripu aseguruak, ehorzketarako aseguruak... Baita egindako inbertsioak babestekoak ere; etxeko aseguruak, ibilgailuenak, itsasontzienak, merkataritza/ETE-etakoak, etab. Funtzionamendua sinplea da: diru kopuru bat ordaindu behar da –aseguru-prima deiturikoa–, eta horren truke, konpentsazio ekonomiko edo zerbitzu bat jasotzen da, betiere polizan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.

Babestu behar ditugun beharrak desberdinak al dira adinaren eta egoeraren arabera?
Desberdinak dira, bai, gure bizizikloan jasotzen ditugun diru-sarreren arabera. Esaterako, jaiotzen garenetik diru-sarrerak izaten hasten garen arte, ikastea eta osasuntsu egotea da gure kezka; lanean hasi eta erretiroa hartu arte, berriz, gure kezka diru-sarrera handiagoak izatea da –eta ahal bada aurreztea–, proiektu berriei ekitea –adibidez, familia bat osatu, enpresa bat sortu...–, inbertsioak egitea eta osasuntsu jarraitzea; azkenik, erretiroa hartzen dugunean, aurretik jasotako diru sarrerak eta egindako inbertsioak nahikoak izatea nahi dugu lasai egoteko eta osasuntsu jarraitzeko, gure azken egunera arte.

Horretan guztian zer paper duzue aseguru etxeek?
Babesa eskaintzen dugu guk. 65 urtetik gorako persona guztiak aipatu berri dudan sailkapenaren azken zatian aurkitzen dira. Seguros Bilbaok, alde batetik, beraien ondasuna babesteko aseguruak eskaintzen ditu. Bestetik, beraien osasuna babeste aldera, osasun-zentro pribatuetara joateko aukera ere eskaintzen du prezio merkeagoetan, gure mediku taldeari esker. Azkenik, bizitza zikloari amaiera emateko, bakoitzaren nahia bete dadin, ehorzketarako aseguruak eskaintzen ditu.

Zuen ustez, adinekoek zer hartu behar dute kontuan aseguru bat aukeratzerako orduan? Zuen aholkua zein da?
Adinekoek eta ez adinekoek, guztiek kontuan hartu behar dutena da aseguru etxe guztiak direla balekoak, pertsona edo agente on batek gidatzen baditu. Agentea da herritar bakoitzaren beharrak aztertuz asegururik egokiena gomendatzen duena eta gero, arazo baten aurrean, borroka egiten duena konponbidea bilatzeko. Aholkuren bat eman beharko banu, esango nuke telefono-aseguru konpainietatik urruntzeko. Banku batzuen aseguruak ere saku horretan sartzen ditut; izan ere, aseguru etxe horrek herrian bulego propioa izan arren, bankuetan egindako aseguruei intzidentzia baten berri emandakoan telefono zenbaki batera deitu behar izaten da, eta ez dakizu beste aldean zein aurki dezakezun.

Zer zalantza izaten dituzte zuengana bertaratzen diren adinekoek?
Aurretik esandakoaz gain, gehituko nuke zalantza gehienak aseguru etxeetan erabiltzen ditugun hitz teknikoek sortzen dituztela: *aurreexistentzia*, *gabealdia* (periodo de carencia), *frankizia*, *koordainketa* (copago)... Hitz horiek gehienetan txartzat hartzen dira, eta ez bada azalpen egokirik ematen, ez dira ondo ulertzen. Ondorioz, gaizkiulertuak sortzen dira.

Adibiderik ematerik baduzu horren inguruan?
Bai. Adibidez, medikuntza pribaturako sarbidea ematen duten hainbat aseguru mota dago. Alde batetik, 65 urtera arte kontratatu daitezkeenak daude, non aseguru-etxeari hilabeteroko kuota ordainduz ospitale pribatuetara joan zaitezkeen nahi adina alditan. Mediku pribatuekin egondako bakoitzean aukera daiteke zerbait ordaindu edo ez ordaindu, eta horri koordainketa deitzen zaio. Koordainketa duten mediku-aseguruak merkeagoak dira ez dutenekin alderatuta. Bestalde, 65 urte arte kontratatzen diren horietan, gaixotasunen aurrekariek garrantzia handia dute; kontratua egin aurretik gertatutako istripu edo gaixotasunek. Horri lotuta, kontratatu ondoren gabeadiak egon daitezke, alegia, gaixotasun baten aurrean mediku-proba berezi batzuk egiteko denbora epe laburra. Epe horretan ezingo dira zerbitzu edo asistentzia batzuk jaso. Dena den, istripuek eta hil ala biziko gaixotasunek ez dute gabealdirik; ondorioz, kontratatu bezain pronto jaso daiteke asistentzia.

Halako aseguru motak kontratatu al daitezke 65 urtetik gora?
Ezin dira kontratatu, baina lehenagotik edukiz gero, mantendu daitezke.

Zer egin dezake 65 urte edo gehiago bete dituen pertsona batek medikuntza pribaturako sarbidea eduki nahi badu diru asko xahutu gabe?
Seguros Bilbaok beste mediku-aseguru mota bat badauka mediku pribatuen zerbitzuak jasotzeko: deskontuak eskaintzen dituen txartel bat da, baita doako zerbitzu batzuk ere, aurreexistetziak kontuan hartu gabe eta gabealdirik gabe, gure mediku taldeari esker. Salud Bienestar dauka izena aseguru horrek, eta ez da bakarrik 65 urtetik gorakoentzat; edozeinek kontrata dezake.

Zer aurkituko dute Zarauzko zuen bulegora bertaratzen direnek?
Errespetua, konfidentzialtasuna, gardentasuna eta inplikazioa. Errespetua oso barneratuta dugun baloreetako bat da. Baita konfidentzialtasuna ere: guregana gerturatzen direnak beraien ondasun garrantzitsuenak babesteko eskatzera datoz, baita ezkutuan gorde nahi dituzten gauzak ere. Gardentasuna erakustea ere oinarrizkoa da, kontratatzen dena sakon esplikatuz eta galdera gustiei erantzunak bilatuz; dena ondo aztertu eta beharrak ezagutzea da gure lana. Ezagutza prozesu horretan, pertsonekin harreman estua sortzen da, eta azkenean, etxean bezala sentitzen dira. Konfiantza erlazio hori sortzen den momentua da niri gehien gustatzen zaidana. Noski, inplikazioa ere garrantzitsua da, batez ere intzidentzia baten aurrean. Kalteren bat gertatzen denean, galera sentimendua izaten du bezeroak: etxea urak hartzen diolako, kotxearekin istripu bat izan duelako edo lapurrak sartu direlako negozioan... Momentu horietan inplikazioa, elkar ulertzea eta laguntza ematea da gehien eskertzen dutena, eta hori da guk eskaintzen duguna.

DATUAK

Zigordia, 30 - Zarautz
943-04 74 86
eunzueta@segurosbilbao.com

Seguros Bilbao
ESTIBALIZ UNZUETA

UROLA KOSTAKO HITZA
Osteguna, 2022ko irailaren 29a

Marije Zumeta eta horren biloba Garazi Txapartegi Zarauzko Munoa plazan, itsasoari begira. ONINTZA LETE ARRIETA

BI BELAUNALDI ELKAR ABERASTUZ

Marije Zumeta eta Garazi Txapartegi amona eta biloba dira, eta iaztik elkarrekin dabiltza Zarauzko Alproja antzerki taldean. Sakonagoa da, ordea, beraien arteko harremana, eta horretaz mintzatu dira patxadaz.

Ez dira amona-biloba asko ibiliko antzerki talde berean, afizioa partekatzen naturaltasun osoz. Marije Zumeta (Zarautz, 1953) eta Garazi Txapartegi (Zarautz, 2007) Alproja taldean elkarrekin dabiltza eta, aurten, gainera, partaideentzat hain preziatua den galtxagorrien paperean aritu dira biak Euskal Jai Eguneko ikuskizunean. «Kristorena izan da», esan du Txapartegik irribarrea eta emozioa ezin ezkutatuta. Irribarretsu begiratu dio amonak.

Harreman estua dute, gertu bizi direlako eta ia egunero etxean izaten dutelako gaztea bazkaritan. «Nik janari gozoa prestatzen diot, eta aitonak pianoa jotzen erakusten dio. Gure seme-alabek ez zuten nahi izan pianoa ikasi, eta aitona zoratzen dago Garazirekin», esan du Zumetak. Irakaslea izana da Aiako herri eskolan, eta betidanik izan du harremana belaunaldi desberdinekin. Aberasgarria deritzo, baita bilobaren eta bien arteko harremanari ere. Berritsuak omen dira biak, eta eztabaidatu ere, eztabaidatzen omen dute, «baina haserretu gabe», zehaztu du Txapartegik.

«Jaio zenetik, gure etxea ere bere etxea izan du», kontatu du amonak. «Txiki-txikitatik uzten zuten gurekin, edo etortzen zen gurasoekin. Aiton-amonen etxea beti izan da berea ere». Bilobak baietz egin du buruarekin. «Denbora asko pasatu izan dut han, gu ere gertu bizi garelako. Gainera, pianoa dute, eta hara joaten nintzen jotzera. Eguerdi asko pasatu ditut han, aurten arte egunero beraiekin bazkaltzen nuelako eskolatik irtendakoan».

AMONAREN ANTZA

Zumetak berak ez zuen halakorik ezagutu; aiton-amonarik gabe hazi zen, eta aitortu du gustura ezagutuko zukeela amama mutrikuarra. «Dirudienez gurekin bizi zen, baina nik lauzpabost urte nituenean hil zen. Pena ematen dit, familiako dezentek esan izan didalako haren antza nuela. Batek esan zidan, gainera, gure amona bere garairako oso modernoa izan zela. Ausarta bai behintzat, 18 urte zituenean Mutrikutik Ameriketara joan zelako bakar-bakarrik, hango izeba batengana». Boisen (AEB) aitona markinarra ezagutu, ezkondu, eta ondoren itzuli ziren Euskal Herrira.

Zumetak izan ez zuen zortea du Txapartegik amonarekin halako erlazio estua izatearren, eta Zumetak amona mutrikuarraren antza baldin badu, Txapartegik ere badu bere amonaren antzik, bai antzerkizaletasuna partekatzen duelako harekin, bai «berritsuak» direlako biak, Zumetaren arabera.

Amona-biloba diren arren, Zumetak argi du ez dela sentitzen amona bakarrik Txapartegirekin dagoenean. «Garazi da gure etxeko pertsona bat eta, gainera, alabaren alaba, eta oso pozik sentiarazten nau».

Alabaren alaba izate hori berezia al den galdetuta, baietz erantzun du. «Alabak esan zidanean haurdun zegoela, pentsatu nuen: 'jolin, jada amona izango naiz'. Eta gogoan dut lagun batek esan zidala berari ez zitzaiola batere gustatzen *amona* deitzea, eta nik esan nion zer zuen ba txarra. 'Gauza ederra dun', esan nion. 'Hik hire seme-alabak izan ditun, eta orain amona haiz, beste kategoria bat dun hori'. Berak zahartzaroarekin lotzen zuen, baina nik uste dut amona izatea gauza oso polita eta ederra dela ondo konponduz gero».

KARGA ALA EZ KARGA

Gurasoek asko jo behar izaten dute aiton-amonengana beren haurren zaintzarekin laguntzeko, eta hori karga bezala sentitu duen galdetuta, errespetua eskatu du Zumetak sentimendu eta egoera guztientzat: «Ezin da ezer orokortu, eta ez dago formula magikorik denentzako. Egongo dira mota askotako aiton-amonak, mota askotako bilobak, eta mota askotako loturak. Ez du izan behar zama bat, edo obligazio bat, gaur egun adinekoek beren bizitza eta beren aktibitateak dituztelako. Errespetuz eta denentzat ahalik onena dena egin behar dela uste dut», iritzi dio.

Lan munduari eta kontziliazioari ere erreparatu dio Zumetak: «Emakumea lan mundura joan denetik ez dut uste lan askorik egin denik kontziliazioaren alde, nahiz eta hitz asko erabili eta *postuero* handia egon. Kontziliazioa gauzatu ahal izateko ez dakit noraino dagoen dena ondo bideratuta». Ikastetxeen ordutegiek eta gurasoen lanekoek bat egitea ere zaila dela uste du.

Bere familiari dagokionez, Zumetarentzat eta haren senarrarentzat «bilobaren zaintza ez da izan zama bat, ezta gutxiago ere, baina horrek ez du esan nahi ez daudenik gogaitutako aiton-amonak, nahiz eta bilobak maitatu eta gustura egon. Gaia delikatua da eta egoera guztiak errespetatu behar direla uste dut, eta

Argazkiko lehen planoan, eskuinean, Marije Zumeta. Atzean, hirugarren tokian, Garazi Txapartegi biloba aurtengo Euskal Jai eguneko Alprojaren antzezlanean, galtxagorriz jantzita. AMAIA URBIETA ARRUTI

denon artean, denon onerako diren irtenbideak bilatzen saiatu, erraza izan ez arren».

NONDIK GATOZEN

Berak argi du gazteengandik eta bilobengandik asko ikasten dela. «Belaunaldien arteko desberdintasunak badaude, zer esanik ez sakelako telefonoez-eta hitz egiten badugu, baina uste dut hori ere aberasgarria dela, bai guretzat beraiena, bai beraientzat gurea». Amonak bere gazte denboretako kontuak batzuetan kontatzen omen dizkio bilobari, baina hizketaldiarekin zerikusia baldin badu soilik, zehaztu du Txapartegik. «Gai bati buruz ari bagara, berari gertatu izan zaiona kontatzen du bere ikuspuntua azaltzeko», eta baloratzen du amonaren esperientzia hori. «Uste dut besteen esperientziak balio duela zeure iritziak hobetzeko, ikuspuntua aberasteko edo behintzat gaiaz gehiago jakiteko. Azken batean, beste ikuspuntuek zeurea zabaltzen laguntzen dute, eta hor, batez ere, esperientziak laguntzen du; besteenak eta zeureak».

Zumetak denboran atzera egin nahi izan du, eta hausnartu du beraiei garai zailak tokatu arren –frankismoaren diktaduraren aurreneko urteetan jaioa da– «zortea» izan zutela. «Frankismo betean bizi ginenez, diktadura amaiera izugarrizko ilusioarekin bizi izan genuen. Orain gizarte berri bat egin behar dugu, eta horretarako, jakin egin behar dugu nondik gatozen eta nora joan nahi dugun. Guk frankismo bukaera bizi izan genuen gure bizitzan aukera berri bat bezala: libreago izango ginela sentitzen genuen, eta gauzak hobeto egingo genituela. Aldi berean, droga garaia tokatu zitzaigun... Gauza horiek guztiek erakutsi digute bizitzen edo bizitza nola ulertu behar dugun ikusten. Saiatu behar dugu gazteei, gure bilobei, helarazten hori guztia, baina ez kexu edo sermoi moduan,baizik eta esanda: 'Begira nondik gatozen, nora goazen, eta elkarrekin egingo dugu bidea'».

Gizartea elkarrekin egite horri ematen dio garrantzi handia Zumetak. «Inoiz ez zait gustatu zer interes dauden edo egon diren adineko jendea sailkatzeko. Gazteak hemen, zaharrak hor... Eta ez zait batere gustatu inoiz jubilatutako jendeari zer irtenbide eman zaizkigun. Nik uste dut adin guztietakook ibili behar dugula elkarrekin».

Esan eta egin. Txapartegik herriko saltsa guztietan sartuta ezagutu du amona, eta erretiroa hartu zuenetik Alproja antzerki taldean ere badabil. Urte askoan, elkarrekin ikusi dituzte herriko taldearen antzezlanak. Orain, gainera, biloba batu da taldera. Dena den, Txapartegik argitu du ez dela amonak esanda sartu Alprojan. «Txikitatik gustatu izan zait antzerkia, eta betidanik ikusi izan ditut Alprojaren antzezlanak. Amona han ikusten nuen, gure ama ere ibili izan zen, eta amaren lehengusuak ere badabiltza taldean. Familia erdia han dugu, eta gutxieneko adinera iritsi nintzenean, 14 urte behar direlako han parte hartzeko, berehala animatu nintzen». Antzerkitik gehien zer gustatzen zaion azaldu du gazteak: «Lotsa galdu egiten duzu, hor dagoena ez zarelako zu, beste pertsona bat baizik, eta hori gustatu izan zait betidanik: beste pertsona bat izateko aukera edukitzea».

Bere buruaren jabe izatea eta hori inoiz ez galtzea da Zumetak Txapartegi bilobari ematen dion aholkua

Antzerki taldeko gazteena da Txapartegi, eta zaharrenetakoa, Zumeta. «Bizpahiru emakume erretiratu joaten gara urtero-urtero, eta oso ondo pasatzen dugu», azpimarratu du.

Amona eta biloba elkarrekin joaten dira batzuetan antzerkiko entseguetara, baina han nork bere kuadrillatxoa du. Handik kanporakoa da beren harreman mamitsuena. Bilobak zer ematen dio amonari? «Garazik lehen esan duena nabarmenduko nuke: bi pertsona gaudela aurrez aurre hizketan, nahiz eta bi garaitan jaiotakoak eta gauzak desberdin ikusten edo bizitzen ditugunak izan. Esate baterako, oso berandu ezagutu ditut ordenagailuak eta sakelakoak; bera horiekin jaio da. Bizitza ikusteko era ere desberdina dugu, eta atentzioa ematen dit gazteak beraien arteko harremanetan zenbat gauzatan jartzen duten arreta. Bestetik, beldurra ematen dit *bullyng*-a eta halako istorio guztiak nola kudeatzen ote dituen... Guk ez baitugu halakorik bizi izan. Hori guztia berengandik ikasi behar dut nik, eta polita da hein batean».

Txapartegik bide horretatik jarraitu du, sakonduz: «Eztabaidak izaten ditugu, talka egiten dugu sarri; ikuspuntu desberdinak daudenean kosta egiten da gauzak ulertzea, baina ez gara haserretzen. Beti dago talka hori, baina ulertu egin behar da denok ez garela garai berekoak eta denok ez garela inguru berean jaio. Denok ez dugu ikuspuntu bera gauza berari buruz. Pertsona bakoitzak ditu gauzak ulertzeko eta esateko bere erak, eta hori batez ere ikusten da garai desberdinetako jendearekin».

Zumetak aitortu du batzuetan ez diola bilobari ulertzen hizketan ari denean, «ingelesezko hitzak eta sartzen dituenean». Hori bai, nabarmendu du askotan edadetuak inuzentetzat hartzen direla, eta bere ustez, errespetatu egin behar dela norbaitek ez badu gaur egungo teknologiaren bat ezagutu nahi. «Adibidez, nik ez dakit zer den Instagram, ez zaidalako interesatzen, ez dudalako jakin nahi. Niri ez zait gustatzen begietara begiratzen ez duen mundu hori, eta uste dut hori ere errespetatu egin behar dela. Gainera, aurrerapen gisa saltzen dizkiguten gauza asko benetan aurrerapenak al dira?», hausnartu du.

Txapartegik esan du amonarekin sarri hitz egin duela halako kontuez. «Teknologia berriek bere alde onak dituzte; esaterako, urrutira komunikatzeko ondo daude. Baina, bi pertsona gertu daudenean, zentzua galtzen du aurrez aurre hitz egin beharrean mezu bidez komunikatzeak. Horretan bat egiten dut amonarekin. Baina, beste gauza askotan, iritzi desberdinak ditugu». Barre egin dute biek.

PATXADAZ

Nabari da amona-biloba lasai aritzen direla solasean, eta horretan Zumetak nabaritzen du aldea ama zen garaietatik amona izatera pasatu den garai hauetara. «Ez da gauza bera 30 edo 40 urte eduki, lanera joan, gero zeure umea zaindu eta abarrak egitea, edo jada 65-70 urte edukitzea. Beste egoera batean zaude bai fisikoki, bai mentalki, eta bilobak beste modu batera hartzen dituzu».

Amamak ez ote du gehiago maite biloba alaba baino? Erantzuna irmoa da: «Diferente. Garazi eta Irati [Garaziren ama] maite bai, baina diferente. Garazi da biloba, eta Irati da alaba. Alabarekin duzu beste harreman bat eta beste elkarrizketa batzuk, eta bilobarekin desberdina da».

Bilobari zer aholku ematen dizkio amonak? «Bere buruaren jabe izatea. Hori ez dezala galdu inoiz», esan du bilobari begietara begira. «Kontuz ibil dadila [droga eta alkohol] kontsumoekin eta kontuz ibil dadila kuadrilletan egoten diren presioekin. Hori ondo kudeatzeko bere buruaren jabe izan behar du. Badakit adinarekin pixkanaka lortzen dela hori, baina ezetz esaten jakin egin behar du, baita alde egiten ere. Egoten ere bai, baina berak nahi duen bezala, ez behartuta».

Amonaren aholkuak gurasoenak baino errazago onartzen dituen galdetuta, argi dago Txapartegik amonari entzun behintzat egiten diola, irmo erantzun baitu berak ere: «Hainbat gairi buruz ematen dizkidate aholkuak aiton-amonek eta gurasoek. Nork bere esperientzia dauka, baina haiek emandako aholkuak hartzen ditudan ala ez, hori beste kontu bat da. Momentu zehatz horretan behar duzun ala ez zeuk ikusten duzu, baita aholkuak eskatu ala ez ere. Beti dago ondo jendeari galdetzea, baina ez daukazu aholku bat literalki zertan hartu, beraien bizitza beraiena izan delako, eta zurea zurea delako. Agian beraiei balio izan die, baina zuri ez».

Erantzunak gustura utzi du amona: «Azken finean, hori da zure buruaren jabe izatea, Garazi». Solasaldia amaitu, eta krepe bat jatera joan dira.

'Zaharra' hitza eta 'gure garaiak'

Marije Zumetak baliatu du solasaldia pare bat aldarrikapen egiteko. Batetik, *zaharra* hitzaren alde. «Arantxa Urretabizkaia idazleari entzun nion behin guk, euskaldunok, *zaharra* esatea pertsona bati buruz ez dela espainolez bezala zerbait itsusia. Eta, bai jauna, arrazoi duela pentsatu nuen. Zaharrak gara; edadean aurrera goazen zaharrak. Eta, oraindik, bizirik».

Bestetik, Zumetak azpimarratu du adin bateko zein besteko izan, denok garai berekoak garela. «Esaten digute gure garaiak beste batzuk zirela, baina hauek ere badira gureak, hemen gaudelako. Biloba izango da belaunaldi batekoa eta ni bestekoa, baina garai bera ari gara partekatzen», arrazoitu du.

URRUTIRA
JOAN
GABE
Zarauzko Biotopoa,
Getariako San Prudentzio auzoa,
Zestoatik Aizarnako galtzada,
Nuarbeko Ibai-Eder urtegia,
Orioko Itxaspeko buelta,
...
erlo
TELEBISTA
EZAGUTU GURE ESKUALDEKO
TXOKOEZ GOZATZEKO
IBILBIDEAK
ERLO TELEBISTAN